

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Pikupeko sikologoa

ZURIAK? Bai, nonahi da zuritik, baina baita laru, urdin, gorri, ubel, beltz... ortzadarra aldenik alde du berea pikondoak, *Ficus carica*. Ez da alferrik fruta-arbola bihurtutako aurrenekotako zuhaitza. Hau ere geure nekazaritzaren jatorria den Asiatik dator. Kontinente haren mendebaldeko muturraren lur muturretik igaroa izango da Europara, Turkiako Cariatik, hortik "carica".

Ortzadarreko fruituak ederrenean diren sasoian begira iezaiozu zuhaitzari ere. Toki kaskarrenean ere bizitzeko gai da. Moztaka, aldrebasa, adarje traketse eta egurje okerrekoa, hosto lakarrak, latexa edo izerdi esnetsua... gozo, fin eta leuna duen bakarra: azala. Abeltzainak ganadu edo abereari ez dio pikondora inguratzen utziko; izerdi esnetsua txarra baita. Honelako arma hostoetan, berdejalerik inguratzeko beldurrik gabe, garaia izateko inolako premiarik gabe zabalera hazten da, moztaka. Gora gabe, lur gainean hazteko egur trinko gihartsurik ez du behar. Egur makalak bateren bat baino gehiago eraman du aurretik: pikutarako tentazioari eutsi ezinik pikondora igo, adarra krask! eta di-damutze-rako lepoa krask! Adarra haztean, luzetaka eutsi



ezinik, lurtean etzaten da, lurra ukitzen duen horretan sustraitu, itsatsi eta alaba bat emango du. Muin-tegietan ere adarretik ugaltzen dira pikondoak. Erosi beharrik gabe, gustuko pikuak ematen dituen arbola topatzen duzunean, neguaren amaian metro beteko adarra kendu, luzera bereko zanga batean mutur-muturra ez beste sartu eta udaberriarekin etorriko zaizu landare berria; klonikoa, amaren berdin berdina, sexurik gabe, aitaren beharrik gabe sortua baita. Sexua da haziak dituen fruitua, sortzeko era; grekoek "sykon" deitzen zuten pikua. Horra piku, *figus*, hitza beraren jatorria. Nik, beti, erlijio-beleen oinordeko psikologoak baino sikologoak nahiago, pikuetan adituak...



Asteasuko lorategia

Baratzea antolatzeke lur muturrik ez eta etxeke balkoian, lorontzitan hazten dituzte barazkiak. Tomateak, marihuana... ale bakan batzuk ikusi ohi dira holakoetan, baina honelako zerba sailik! Zerbazale amorratuak nonbait... Euskal baratza hauze da, barazkiak, loreak, belarrak... denak elkarren aldamenean. Telebistaren uhinak jasotzen dituen antenaren parean daude kaxkarrenak, zergatik ote?

"Udazkeneko loreak fruta gutxi"

5.454

dira Euskal Herrian olibondoz landatutako hektareak (10.000 m²). Nafarroa Garaian 5.258, Araban 194, eta Bizkaia eta Gipuzkoan Bana.

